

# Turismoaren onurez eta kalteez

**Sekuentzia honetan bizi garen tokietan turismoak izan ditzakeen onurez eta kalteez arituko zara. Ariketa hauek proposatzen dizkizugu:**

- Binaka, zure gustuko oporretarako lekuei buruz hitz egin.
- Audioa entzun ondoren, galderen erantzun zuzena aukeratu.
- Bideo entzun bitartean, entzundakoarekin bat datozen edo ez identifikatu.
- Turismoaren masifikazioari buruz hitz egin, aldeko eta aurkako argudioak emanaz.

## Gure gustuko oporretarako lekuak

Turismoa egitera zoazenean, nolako tokiak dituzu gustukoen? Hemen dituzu hiru adibide.

Erantzun galdera hauei eta komentatu albokoarekin.



1. Oporrak igarotzeko leku bat aukeratzean zer da zure ustez garrantzitsuenak?
  - Toki lasaia eta baketsua izatea.
  - Zerbitzu eta dendak izatea.
  - Mendiz inguratua egotea.
  - .....
2. Gogoratu asko gustatu zitzaizun oporretarako leku bat. Bertako jendearekin harremanik izan zenuen?

## Udal-ordenantzari buruzko foroa

Donostiako Udalak laster ordenantza bat onartu nahi du, bertako etxebizitza turistikoak arautzeko. Entzun zer dioten horretaz APARTURE elkarteko ordezkari den Asier Peredak. Audio osoa entzun ondoren, aukeratu beheko galderen erantzun zuzena.



<https://labur.eus/O5Ntz>



### 1. Zer helbururekin sustatu du Aparturek foro hau?

- Etxebizitza turistikoaren datuen inguruan eztabaida serioa egiteko.
- Euskal Herriko etxebizitza turistikoaren inguruko legediaz eztabaidatzeko.
- Etxebizitza turistikoaren jabeekin gaiari buruz eztabaidatzeko.

### 2. Zer profileko jendea bildu da fororako?

- Guztiak modu arautuan beren pisu turistikoak ustiatu nahi dituzten Donostiako bizilagunak dira.
- Gipuzkoako eta Bizkaiko bizilagunak dira, beren pisu turistikoak ustiatu nahi dituztenak.
- Gehienak pisu turistikoaren jabeak dira, Donostiako eta Gipuzkoako bizilagunak.

**3. Nola eragingo die ordenantza berri honek pisu turistikoiei?**

- Ustez, araututa dauden pisuen erdiak legetik kanpo utziko ditu.
- Donostian arautuak dauden 1.600 etxeetatik ia erdiak legez kanpo utziko ditu.
- Bidegabekeria sortuko du, araututa dauden pisu gehienak legez kanpo utziko dituelako.

**4. Zer dio Euskadiko Lehiakortasunerako Agintaritzaren txostenak udal-ordenantza honi buruz?**

- Konpetentzia askea auzitan jartzen duela.
- Udalak ez duela konpetentziarik turismo-jarduera bat mugatzeko.
- Pisu turistikoen arteko konpetentziari kalte egiten diola.

**5. Zer dio Asierrek pisu turistikoen eraginei buruz?**


- Pisu turistikoen eraginez, pisuen alokairuak ez direla beti igotzen.
- Donostiako turismoaren kalitatea ona denez, ez duela ez arazorik, ez zaratarik sortzen.
- Hemendik aurrera isun gutxiago jasoko direla zarata eta zikinkeriatatik.

**Nola eragingo du araudiak?**

Bideo honetan pisu turistiko baten jabeak eta turista batek beren ikuspegia azalduko dute.

Bideoa entzun ondoren, adierazi beheko esaldiak bat datozen entzun duzunarekin.

	Egia	Gezurra
Ainhoak bere etxea gehienez lau hilabeterako alokatzen du.		
Eneko Goia ziur dago udal-ordenantza honen eraginez pisu turistikoen eskaintza handituko dela.		
Ordenantza honen eraginez, Donostiako Alde Zaharrean, lehen pisuetako etxebizitza turistikoek bakarrik iraungo lukete.		
Turista ingeles hauei Donostiako hotelen prezioak garestiegiak iruditzen zaizkie.		
Donostian dauden 1.200 pisuetatik gehien-gehienak auzo bakarrean pilatzen dira: Alde Zaharrean.		
Ainhoaren ustez, udal-ordenantza honek turisten eta etxejabeen eskubideak urratzen ditu.		



<https://labur.eus/uKsAM>



## Turismoari stop?

Jarraian, binaka toki bateko turismoa handitzeak izan ditzakeen onurez eta arriskuez hitz egingo duzue. Erantzun beheko galderei eta ondoren, komentatu taldean.

1. Zure herri edo hirian nabari duzu turismoa handitu dela? Ondorioak onerako ala txarrerako izan dira?
2. Turismoa mugatzeko neurririk hartu beharko litzateke? Donostiako udalean bezala, pisu turistikoak arautzea, neurri egokia da?
3. Erreparatu beheko irudiei. Demagun Itzurungo hondartzan luxuzko hotel bat eta Lekarotzen golf-zelai bat eraiki nahi dituztela. Zer ondorio positibo eta kaltegarri izango litzuzke?



**Lekarotz (Baztan bailaran)**



**Zumaiako Itzurungo hondartza**

Ondorio batzuk:

- Zarata eta zikinkeria gehiago
- Ekonomia indartzeko aukera ugari: zerbitzu-lanpostu gehiago
- Bertako eta inguruko etxebizitzaren prezioak eta alokairuak garestiago.
- Zerbitzu gehiago: garraioa, esaterako
- Bertan bizi direnen bizi-kalitatean aldaketak
- Paisaiaren aldaketa
- Besterik? ...



## Zuzenketa-orria

### Udal-ordenantzari buruzko foroa

**1. Zer helbururekin sustatu du Aparturek foro hau?**

✓ Etxebizitza turistikoaren datuen inguruan eztabaida serioa egiteko.

**2. Zer profileko jendea bildu da fororako?**

✓ Gehienak pisu turistikoaren jabeak dira, Donostiako eta Gipuzkoako bizilagunak.

**3. Nola eragingo die ordenantza berri honek pisu turistikoari?**

✓ Ustez, araututa dauden pisuen erdiak legetik kanpo utziko ditu.

**4. Zer dio Euskadiko Lehiakortasunerako Agintaritzaren txostenak udal-ordenantza honi buruz?**

✓ Konpetentzia askea auzitan jartzen duela.

**5. Zer dio Asierrek pisu turistikoaren eraginei buruz?**

✓ Donostiako turismoaren kalitatea ona denez, ez duela ez arazorik, ez zaratarik sortzen.

### Nola eragingo du araudiak?

	Egia	Gezurra
Ainhoak bere etxea gehienez lau hilabeterako alokatzen du.	X	
Eneko Goia ziur dago udal-ordenantza honen eraginez pisu turistikoaren eskaintza handituko dela.		X
Ordenantza honen eraginez, Donostiako Alde Zaharrean, lehen pisuetako etxebizitza turistikoek bakarrik iraungo lukete.	X	
Turista ingeles hauei Donostiako hotelen prezioak garestiegiak iruditzen zaizkie.	X	
Donostian dauden 1.200 pisuetatik gehien-gehienak auzo bakarrean pilatzen dira: Alde Zaharrean.		X
Ainhoaren ustez, udal-ordenantza honek turisten eta etxejabeen eskubideak urratzen ditu.		X

## Transkripzioak

### Udal-ordenantzari buruzko foroa

AURKEZLEA.- Oraintxe Mezularia hasi den garai berean hasi da Donostiako Tabakalera, arratsaldeko 6ak jo dutenean, Euskadiko Etxebizitza turistikoaren aurreneko foroa. Aparturek sustatutako foroa da eta ustez arrakasta handia eragin duena. Asier Pereda da Apartureko presidentea. Arratsalde on, Asier.

ASIER PEREDA.- Arratsalde on. Ba bai, sustatu dugu ba Euskadiko lehenengo foro hau, etxebizitza turistikoaren inguruan eztabaidatzeko, eta beno, nolabait, datuen inguruan, ba, ba eztabaida serio bat egiteko intentzioarekin.

AURKEZLEA.- Eta arrakasta handia uste dut izan duela, foroa jende, jendetsua izango da?

ASIER PEREDA.- Ba bai, ziztu bizian, ziztu bizian saldu dira sarrera guztiak.

AURKEZLEA.- Esadazu, Asier, zergatik uste duzu bildu dela horrenbeste jende? Ze profileko jendeak dira forora joan nahi izan dutenak?

ASIER PEREDA.- Ba nik uste gehiengoak pisu turistikoaren jabeak direla, Donostia eta Gipuzkoako bizilagunak gehienbat. Modu serioan eta legalez, eta araututa, ustiatu nahi dituzte pisu turistikoak, eta horretan dabilta.

AURKEZLEA.- Zenbat jendek dauka pisu turistikoa momentu honetan Donostian? Badaukazue zifrarik?

ASIER PEREDA.- Ba Donostian mila eta bostehun pisu inguru, araututa daudenak dira mila eta berrehun. Araututa daudenak, esan nahi dut Eusko Jaurlaritzan jarduera-baimena aurkeztuta dutenak. Momentu honetan udaletxeak indarrean jarri nahi duen ordenantza berriak, teorikoki, araututa dauden pisuen erdiak legetik kanpo utzi behar omen ditu. Horregatik esaten dut: utzi behar omen ditu. Ze gure iritziz ez da bidezkoa. Eta legalki behintzat bidegabekeria bat da. Eta bueno, pentsatzen dugu momentu honetan oraindik badagoela denbora zuzenketak egiteko, eta orain dela bizpahiru egun Euskadiko...

AURKEZLEA.- Bai. Hori, hori galdetu behar nizun hain zuzen ere, ze araudia, Donostiako Udalak bidean daukan araudi hori, ba datorren martxoan onartu nahi da, ezta? AUVC-ek edo Euskadiko Lehiakortasunerako Agintaritzak txostena...

ASIER PEREDA.- Hori da.

AURKEZLEA.-...eman du argitara. Eta esaten du libre competencia, konpetentzia askea, zalantzan jartzen duela egiten ari diren araudi horrek, eta iruditzen bazaizu, Eneko Goia Donostiako alkateak zer iritzi eman duen horren aurrean entzungo dugu aurrena.

ENEKO GOIA.- Arazoa ez da guk egiten dugun ordenantza honi zenbait xehetasun jartzea. Txosten honek esaten duena da udaletxe batek arlo honetan ez daukala zeresanik. Eta hori nik uste dut okerra dela.

AURKEZLEA.- Hori da Eneko Goia alkatearen iritzia. Zuek ez duzue gauza berdin ikusten.

ASIER PEREDA.- Honbre, eske hain zuzen ere berak dioena guk ere onartzen diogu, baina legalki lurraren arautze-prozesu horrek eragin zuzena baldin badauka jarduera ekonomiko jakin batean, hori, lurraren legeztatzearen eremutik kanpo geratzen da, eta hori da Euskadiko Lehiakortasun Agentziak dioena. Orduan Donostiako Udalak eta udaletxeak dioena, zeharo legez kanpo dago, eta gure iritziz Eusko Jaurlaritzan lizentzia daukaten pisu guztiak legalak dira.

AURKEZLEA.- Hor, badakizu, zer esaten den pisu turistikoei buruz. Askok dauden lekuan zarata handia egoten dela, auzokideek ezin dutela behar bezala lo egin.

ASIER PEREDA.- Bai.

AURKEZLEA.- Eta alogerak ere asko igotzen direla pisu turistikoaren eraginez...

ASIER PEREDA.- Bai. Ba gaur bertan azalduko dugu horren inguruan nola hori, zarata den, eta nola datuek ez dutela bat egiten holako titularren inguruan. 250.000 gaualdi bakoitzeko isun bakar bat jaso dugu. Ea zeinek daukan horrelako estatistika. Osea, eske Donostian daukagu turista-maila bat ikaragarria dena. O sea, hemen daukagun turismo-kalitateak ez du ez zaratarik, ez arazorik sortzen

## Nola eragingo du araudiak?

AURKEZLEA.- Ordubete baino gutxiago geratzen da bezeroak iritsi aurretik eta Ainhoa dena ondo dagoela ikuskatzen ari da. Duela hiru urtetik alokatzen die bere pisua turistei Donostiako erdigunean.

AINHOA.- Era honetan alokatuta, honek ematen digu aukera, guk geure etxearekin disfrutatzeko. Uztaila eta abuztua 155 euro gaueko. Etxe hau adibidez alkilatuta (alokatu) dugu asko jota, egongo da alokatuta ba lau hilabete.

AURKEZLEA.- Turismo Legeak dioten moduan bere etxea Eusko Jaurlaritzaren erregistroan izena emanda dago. Gaur egun gehien kezkutzen duena Donostiako Udalaren Ordenantza berria da.

AINHOA.- Niretzako eskubide-urraketa bat dela. Nik baldin badaukat etxe bat dena nirea. Nik zergatik ezin dut alkilatuta, alokatuta beste pertsona bati gura duena nire etxera etorri? Ez dut ulertzen zergatik ez duten gura irabazien demokratizazio hori.

AURKEZLEA.- Polemikaren erdian Donostiara iritsi dira euren oporrez gozatzerako. BI senar-emazte ingeles hauek astebete emango dute Ainhoaren etxean. Ez zeuden prest hotelek eskatzen zieten ordaintzeko.

TURISTA INGELESA.- Hotelak oso garestiak dira Donostian: 600 euro eskatzen zizkiguten gaueko lau lagunentzat, nahiago dugu jatetxeetan gastatu. Pisuak arazo bat dira batzuentzat, baina aukera ona turistentzat.

AURKEZLEA.- Alokairu turistikoaren boomak honelako itxura dauka Donostian Jaurlaritzaren azken datuen arabera. 1.200 baino gehiago dira, gehien alde zaharretan, erdigunean, Grosen, Egian eta Antiguana daude.

Eskaintza hau erregulatzeko gai izango direla uste du Eneko Goia alkateak aurkeztu duten ordenantzarekin.

ENEKO GOIA.- Bai pentsatzen dut gaur egun dagoen eskaintzaren erditik behera joango dela.

AURKEZLEA.-Araudiak hiru gunetan banatzen du hiria. Gehien arduratzen dituen Alde Zaharra da. Zona saturatua izendatuko lukete, eta hortaz, lehen pisuetan dauden etxeek bakarrik iraungo lukete.

ENEKO GOIA.- Gaur egun daukagun planeamendua betetzea eta aukera berririk ez irekitzea.